



50. URTEURRENA OSPATZEKO PORTUGALERA

Alegiako Txintxarri Abesbatzakoak Evora herrian eskainiko dute emanaldia gaur; sei egunetako bidaia hasi zuten atzo 6

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Osteguna
2010-04-01

VIII. URTEA 1976. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Suediako Vasaloppet lasterketa oso jendetsua da, irudian aurtengo hitzorduaren irteera ikusi daiteke. HITZA

IRAUPEN ESKIAREN ARRASTOAK TOLOSALDEAN

KIROLA Eskualdeko eskiatzaile asko animatu dira negu honetan zehar Europako proba luze eta jendetsu desberdinetan parte hartzera 2-3

LEIRE OLABERRIA
TXIRRINDULARIA

«Omniuma oso bitxia da eta profil berezia behar da ondo moldatzeko»

IKAZTEGIETA Munduko Txapelketan brontzezkoa lortu du diziplina berrian 7



HITZA



Cofanera ez erabiltzen duten irratsaioak berebiziko garrantzia du. HITZA

KEPA FERNANDEZ DE LARRINOA ANTROPOLOGOA

«Latinoamerikan irrati komunitarioen ideia oso zabaldua dago»

ALKIZA Bi urtez Cofan indigenekin egindako lana laburbiltzen duen liburua bukatzen ari da 4-5



HITZAren hurrengo alea **apirilaren 7**an argitaratuko da

Ongi
pasa!

ESKI MARATOILARIAK

Kirola » Iraupen eskiak aspaldidanik du tradizioa Tolosaldean; negu honetan ere eskualdeko asko izan da Europako proba luze eta jendetsuetan parte hartzen.

JOXEMI SAIZAR

Martxoan bete dira 100 urte lehen euskaldunak (tolosarrak izan ziren) eskien gainean ibiltzen hasi zirela, Berastegin. Hemen inguruko mendietan ibili ondoren Pirinioetara joaten hasi ziren. Ez zuten pentsatuko mende bat beranduago eskualde honetako eskiztaile asko Europako proba desberdinetan parte hartuko zutenik. Halaxe izan da aurrten ere: Suedia, Italia, Finlandia, Txekia, Suitza, Frantzia eta Poloniako iraupen eskiko martxa luze eta jendetsuetan izan dira Tolosaldeko ordezkariak.

Suedian barrena

Worldloppet izeneko zirkuituan biltzen dira eski proba horiek. Denen artean luzeena eta jendetsuena Suediako Vasalopplet da: 90 km eta 16.000 parte-hartzaile. Beteranoak eta reinzidentekak dira bertan izan diren tolosaldearrak. 1998an *Hiru pauso hirurorabide* espedizioa egin zutenetako batzuk Suedialdera joan martxo hasieran eta Vasalopplet eski proban parte hartu dute. Ramon Olasagasti berrobitarrak eta Aitor Elduainen tolosarra, k hain zuzen ere. Asteasun bizi den Xabin Mujikak ere parte hartu du. Parte hartu gabe gelditu ziren beste bi bidaikideak Josu Iztueta eta Pablo Dendaluz tolosarrak dira. Ramon eta Aitorrentzat lehen aldiaz zen. «Esperientzia polita izan da. Zaleasuna badugu, baina han beste kultura edo kultura dute eskiarekiko, eta batez ere iraupen eskiarekiko. Txikitandik egiten dute eta naturala da eskiztazea», dio Olasagastik. Partaide guztien artean, 10.000 suediarrek dira eta gainontzekoak atzeritarrek, tartean eskandinaviarrak gehienak. 42 herrialde desberdinetatik etorritako eskiztaileak elkartu dira. «XIV Orduko Martxa eta Behobia-Donostiaren arteko zerbitu bezala hartu behar duzu: lasai, anoia puntuetan geldituz, janez...», eranstean du berrobitarrak.

Vasaloppletan aurretik beste proba batean izan ziren talde honetako kideak: Birkebeiner-Rennet, 54 km ditu, 15.000 partaide eta aldapatsugoa da. «Ondo etorri zaigu entrenatzeko, hemen ez baitugu aukera handirik izan. Aralarren zerbitu ibili gara eta gero Suedian 3-4 orduko saioak egin ditugu»,



Suediako Vasalopplet lasterketa da guztien artean jendetsuena. HITZA

dio Olasagastik.

Gainera kazetari lanetan ere aritu dira Olasagasti, Elduainen eta Dendaluz. Aitor Elduainenek karrieratik bertatik zuzenean egin zituen Euskadi Irratirako konexioak.

Italiako Marcialongan

Oso ospetsua da baita ere Italiako Marcialonga proba. 70 km-ko lasterketa honetan 6.500 partaide izan ziren urtarilaren 3in, tartean Jose Luis Gorri Lekuona eta Iñaki Larrea tolosarrak, hemen aipatuko ditugun eskiztaileen arteko beteranoa eta gazteena, 69 eta 24 urterekin, hurrenez hurren. Lekuonak curriculum luzea eta abe-

ratsa dauka iraupen eskian: Euskal Herriko eta Espainiako txapeldu-tan izan zen, beterano mailako nazioarteko probetan izan da...

Martxa luze hauetan ere aspaldi hasi zen. 1974ean Laponiako espediziora joan zirenean, Vasalopplet izan zen eta geroztik beste hainbat korritu zuen, baina azken hamabi urteetan ez da horrelakoetan ibili. Munduko beteranoen txapelketetan bai, parte hartu izan du. «Seefeld-en (Austria) geunden, azken urte hauetan bezala, lagun koadrila eta Marcialonga egiten den lekua gertu zegoenez, animatu egin ginen», dio Lekuonak.

«Ondo prestatuta joan nintzen, iaz bizikletaz 6.000 km egin nitue-

lako guztira eta iraupen eskian 400 km neramatzan. Gozatu egin nuen. Iñaki atzeago aterazen, denbora arabera, kajoika ateratzen garelako, baina harrapatu egin ninduen eta gero ezin izan nuen jarraitu», eranstean dio lasterketa azaltzeko. Italian sortzen den giroa goraitzen du: «Asko animatzen dute, akordeoia jotzen jartzen dira, baserrietan denetik eskaintzen dizute». Gustura ibili eta disfrutatuta egin dutenez, datorren urterako horrelako beste martxa baterako animatzen ari dira biak.

Finlandiako Rajalta Rajallen

Eskandinavian horrelako karre- ren tradizio handia dago eta Fin-

landian Rajalta Rajalle-Hihhto (ingelesez Border to Border) ibilaldia egiten dute, 440 km zazpi egunetan Laponian zehar, denborarik hartu gabe eta sailkapenik egin gabe. Irteera lau egunetan jarraian ematen dute, eguneko ehun bat eskiztaile abiatuz. Anoa guñak izaten dira tarteka eta lotarako tokiak hotelak, aterpeak edo eskolak izaten dira. Francis, Jaime eta Luis Navarro anaia alegiarrak izan dira bertan martxoaren 14tik 20ra. «Lehen ere Tolosaldeko lagun batzuk joan ziren eta haiei entzunda animatu gara. Luis Galizian bizi da eta urtean behin bakarrik eskiatzen du, Eguberrietan hona etortzen denean. Jaimek ere ez du asko prestatu. Ni bai, ibili naiz. Proba polita eta gogorra da, une batzuetan aspergarria, zelai handiak dituelako. Egunean 6-9 ordu egiten genituen, baina oso mantso», dio

Europako lekuak ezagutzera eta proba luze hauetan sortzen den giroa bizitzera joaten dira

Eskiztaile gehienak beteranoak dira, aurretik ere parte hartu izan dute horrelakoetan eta errepikatu egiten dute

Francis Navarrok. Antolamendu oso ona aipatzen du baita ere.

Txekiako Jizerská Padesátka

Txekian Jizerská Padesátka izeneko proba egiten da urtero urtarilaren hasieran. Jon Miren Begiristain, Pello Artutxa, Emilio Gonzalez, Martín Saraguet eta Edorta Andueza tolosarrak izan dira aurrten. Urtarilaren 10ean izan zen 50 km-ko proba, estilo klasikoan, beste 5.000 lagunekin batera. Egun berean 25 km-ko proba ere izan zen eta Joseba Rojo gazte tolosarrak parte hartu zuen 3. postua lortuz. «Urtero horrelako batera joaten gara eta gehienak eginak ditugu, batzuk behin baino gehiagotan. Duelabizpahiru urte Rosa Etxeberria eta horiek joan ziren, baina ez zen egin. Aurreko aste osoan hotza egin zigun eta probaren egunean makina sartu eta elurra aldatu zuten. Gaur egun kristalizatu egin zen eta lehen kilometroetan gaizki ibili ginen. Argizariekin ez genuen asmatu, ez guk eta ez beste inork. Gero zirkuituak altura hartzen zuten eta hobeto moldatu ginen», dio Begiristainek. Horrelakoetara batez ere disfrutatzea eta jendea eta lekuak ezagutzera joaten direla eranstean du. Hurrengo urterako ere animatuta daude eta abuzturako erabakita izango dute nora joan.

Lerro hauek idazterakoan, Txiki Plazas tolosarra Alpeetako proba luze batean parte hartzeko izan, Albertvilleko eski estazioan.

Alpino Uzturrekoak «bikain»

ERREDAKZIOA

Asko dira eskualdetik atzerriara jotzen dutenak lasterketa berezien bila. Iraupen eskiak jarraitzaile asko ditu gurean eta batzuk afizioz aritzen badira ere, asko dira, gazteak gehienbat, txapelketetan parte hartzen dutenak. Asko Alpino Uzturre taldekoak dira, eta batzuk pasa den asteburuan Aragoiko Candanchuko pistetan izan ziren Iraupen Eskiko Espainiako Txapelketan. Alpino Uzturreko eskiztaileak emaitza bikainak lortu zituzten, gainera.

Nagusietan, Joseba Rojo Vancouver Olinpiadetan ibilitako batzuekin lehiatu zen eta klasiko eran 3. postua eta estilo librean 4. postua lortu zituen. Imanol Rojo, junior mailan, irabazle izan zen bai klasiko eta estilo librean. Eta bi anaiek, Irungo Maialen Lopezekin batera, zilarrezko domina eskuratu zuten ere erreleboetan.

Aurtengo berrikuntza, dena den, Manex Begiristain infantilan izan zen. Euskadiko txapelketan proba egin eta gero, bere kategorian garaipena lortu baitzuen. Le-

hen aldia zen lehiaketetan aritzen zela eta oso ondo aritu zen Alpino Uzturrekoen hitzetan, klasiko eran 8. postua eskuratu baitzuen eta estilo librean 6. sartu zen.

Beteranoetan, Lordes Irazusta izan zen irabazlea.

Aurtengo eski denboraldiaren amaiera «bikaina» beraz eta nabarmentzekoa da ere Rojo anaiek hobekuntza nabaria egin dutela aurtengoan Europako Kopan, junior eta 23 urte azpikoen mundialetan parte hartuz eta postu esanguratsuak etxeratuz.



Vasaloppetera joandako talde Holmenkolleneko tranpolinean. HITZA



Polonian eskiatzen izandako lagun taldea. HITZA



Jaime, Francis eta Luis Navarro anaiak Finlandiako proban. HITZA



Mertxe Iriberrí (eskuinean) Poloniako probako podiumean. HITZA

«Klasikoan baino errazago moldatzen naiz patinadorean»

JOSE LUIS JAUREGI » Eskiatzailea

Eskia » Poloniako Bieg Piastrow proba luzean bere mailako lehena izan da beteteranoa; urtero hartzen du parte horietako batean.

J.SAIZAR

Jose Luis Jauregi 62 urteko tolosarrak iraupen eskia, mendia, txirrindularitza eta atletismoa praktikatzen du aspalditik. Azken urteotan iraupen eskiko proba luzeetan hartzen du parte Europan zehar eta martxoaren 7an Polonian bere mailako lehena izan da.

Noiz hasi zinen eskiatzen?

14-15 urterekin Aralarren. Oargi mendi elkartean nenbilen orduan eta gure kasa ikasi genuen, zartako ederrak hartuz. Gero ezkondu eta semearekin ere mendira eta eskiatzera joaten jarraitu genuen.

Beste kirolik egiten al zenuen?

Mendia batez ere. Pirinio guztia ezagutzen dut eta Alpeetako mendi ezagunenetan ere izan naiz.

Eta noiz hasi zara lehiaketetan parte hartzen?

Beteranotan, 48-50 urterekin, Aralarren hasi ginen Ordizia eta Errenteria inguruko koadrila batekin Espainiako txapelketa ofiziosetan parte hartzen. Tolosatik Jose Luis Gorri Lekuona, bere emaztea Ana Luengo, Juan Jose Lampre, Begoña Iraola nire emaztea eta ni joan ginen lauzpabost urteetan eta domina batzuk irabazi



ASIERIMAZ

genituen. Orain ez da jada egiten. Munduko Txapelketan ere izan ginen Italian. Sekulako maila dago. **Eta noiztik ari zara proba luzeetan parte hartzen?**

Azken urteotan zazpi edo zortzi egin dugu. Vasaloppet (Suedia) bi aldiz, Marcialonga (Italia), Engadin (Suitza), König Ludwig Lauf (Alemania) eta aurtun Bieg Piastrow-en (Polonia) izan naiz.

Nolako proba izan da aurtengoa?

Martxoaren 7an egin nuen patinadore estilokoa, 44 km-koa. 400 partaide eskas izango ginen eta irteera mailakatu, aurreko probetako denboren arabera. Bezperan klasiko estiloan izan zen. Zirkuitu oso gorabeheratsua zen, iraupen eskirako oso aproposa, polita. Elur ona zegoen eta eguraldi ona (-9°C) egin zuen. Disfrutatzen joan nin-

zen bide osoan. Nire burua ondo ikusi nuen eta 60 urtetik gorako mailan lehena iritsi nintzen eta sailkapen orokorrean 79.a.

Gustura, beraz.

Gure adinean hainbeste jende ez dago patinadorea praktikatzen duena, nahiko berria delako. Niberriz, klasikoan baino errazago moldatzen naiz. Bestalde, ahal dudana guztia ematea gustatzen zait.

Eta zer moduz gelditu ziren zure taldekideak?

Berastegin bizi den Mertxe Iriberrí 7.a izan zen sailkapen orokorrean. Podiumeera igo zen. Eta bere mailako 2.a izan zen. Rosa Etxeberria eta Manu Elorza tolosarrak bateratu iritsi ziren. Rosa emakumeetan 13.a eta bere mailan 2.a izan zen. Kahun Etxeberria eta nire emaztea Begoña Iraola ez ziren atera. Gero Ordizia eta Errenteria inguruko beste lagun batzuk ere joan ziren gurekin.

Probaz aparte, bidaia aprobetxatuko zenuen.

Bai, egun batzuetarako joaten gara beti eta aurreko astearen egunero eskiatu genuen 30 km inguru. Ondo pasatzea da helburua.

Zein entrenamendu egiten duzu?

Somporten ibiltzen naiz ia asteburero eta orain erretiratua nagoenetik egun gehiago ere bai. Urtean zehar mendia eta bizikleta egiten dut. Denboraldia bukatzen ari da eta horietan hasiko naiz. Korrika egitea ere asko gustatzen zait, baina orain utzita daukat.

«Giroa ez da hain profesionala horrelako proba herrikoietan»

JOSEBA ROJO » Eskiatzailea

Eskia » Goi mailan dabilen Joseba Rojok martxa luzeak probatu ditu aurtur; Italia, Suitza eta Txekian izan da horrelakoetan.

J.SAIZAR

Candanchun, Espainiako Txapelketan harrapatu genuen Joseba Rojo eskiatzailea, proba luzei buruz galdetzeko deitu genionean. Denboraldi osoa Europan gora eta behera kontzentrazioetan eta probetan ibili ondoren, atsedeneren esperoan dago.

Zer moduz joan da txapelketako lehen eguna?

Bertan behera gelditu da lasterketa eguraldi txarragatik.

Aurtun proba luzeak probatzeko aukera izan duzu.



HITZA

Bai, eta lehen aldiz. Euroloppet zirkuituko Italiako Valcasies proban (Gsieser Tal Lauf) eta Worldloppet zirkuituko Engadin (Suitsa) eta Jizerská Padesátka (Txe-

kia) izan naiz. Lehen biak 42 km-koak dira eta bestean 25 km-ko proban atera nintzen.

Eta nola gelditu zinen?

Italian 16.a, Suitzan 29.a eta Txekian 3.a.

Zein izan da ateratzearen arrazoia?

Entrenamenduaren barruan sartzen zen. Italiakoa garrantzitsua zen ateratzea zegoen jendearengatik. Europako Kopan sartzen zen.

Zein desberdintasuna dute normalean egiten dituzun probekin?

Giroa. Hainbeste jende izanda (Engadinen 13.000) giroa ez da hain profesionala, herrikoia goa baizik.

Zein gustatu zaizu gehien?

Engadin, irteera laku baten gainean egiten da eta paraje ederra da. Errepikatzen modukoa.

Elkarrizketa

KEPA FERNANDEZ DE LARRINOA Antropologoa

«Analfabetoak dira, baina ahozkotasuna dute kultur ondare»

Alkiza » Amazoniako oihanean Cofan indigena taldearekin elkarlanean aritu da. Bertan, eskualdeko irriti komunitarioan irratsaio bat dute Cofan hizkuntzan.

AGURTZANE BELAUNZARAN

Antropologia, garapena eta mundu indigenaren arteko harremanak berebiziko interesa sortzen diote Nafarroako Unibertsitatean antropologia irakasle den Kepa Fernandez de Larrinoari (Alkiza, 1958). Antartidako Inuiten inguruan egindako proiektu eta ikerketak lanak azalduz gero, hildakuen Quifoko (Ecuador) Unibertsitateak Bertan, Amazoniako indigenak ezagutu zituen, eta bi urtez Cofan indigenekin egindako lana laburbiltzen duen *Palabras Propias* liburuari azken ukituak ematen ari da.

«Palabras Propias» tituluak bi urtetako esperientzia bitzen du. Zein izan da proiektuaren lurburua? Ecuador iparraldeko Sucumbi probintzian eta Colombiako lurretan bizi diren, Cofan talde indigenak irriti komunitarioa berrantolatzea izan da zeren helburua. Lati-



A. BELAUNZARAN

noamerikan irriti komunitarioen ideia oso zabalduta dago. Proiektu honen duen berrirratze nagusia, irratsaio, indigenek berriak sortu eta produzita da. Berak dira beren historia propioaren narrazioa eta komunikazioa. Iratsaio bikoitza gaur arteko batean gertatzen dute eta hau arazo kulturaleko berrantolatze, bestalde, liburuak. Eskaerak Herriro giza lanketako ikasleek bertan izandako esperientzia ere bitzen du.

Hilberria

JUAN ZUBIRIA IKUTZA Jauna
Marianaren 1930an, 82 urte zituela, Euzkaldunak...
Haren emazte, Txana Mendiberea, semea, Iñaki, Txana, Iñaki, Iñaki, Iñaki...
1908A
2008ko apirilaren 14
Oraindik gogoratzen dituzte TORO-TANAN TORO-TANAN, baina jaiak jaiak...
2008ko apirilaren 14

ndu bat dute. Cofan ezarritako hitz egiten dutenak 1.000 dira gutxi gora behera, eta hainek Ecuador eta Colombiako mugetan sakabanatuta 10 komunitatetan bizi dira. Irriti komunitario honetan Kichwaekin batzen da, baina Cofan ezarritako hitz egiten dutenak 10 minutuko irratsaio bat izatea lortu dugu. Gure helburua, irratsaio funtzio soziala izatea da, egitura sozialak erabaki eta kritikak izatean erabakitea. Eta bata bestea eragotziko oso sakabanatuta bizi diren komunitateen arteko komunikazioa Cofan ezarritako hitz egiten dute eta beraien hizkuntza mantentzeko tresna da irratsaioa.

Zein pauso eman dira jada horretarako? Kontatu hartu behar da Cofanen errealitate geografiko eta soziala. Lehenengo, Amazoniako oihanean kokatu behar gara eta gero hiki gaitzatzen bat dela gaitzatzen gara, irratsaio animazio sozialak burutzen hasi dezaten.

Zein pauso eman dira jada horretarako? Kontatu hartu behar da Cofanen errealitate geografiko eta soziala. Lehenengo, Amazoniako oihanean kokatu behar gara eta gero hiki gaitzatzen bat dela gaitzatzen gara, irratsaio animazio sozialak burutzen hasi dezaten.

«Petrolio eta egurtegi enpresek indigenen bizimodua erabat aldatu dute»

Indigenen alde, Petrolio eta egurtegi enpresek aldatuak dituzte errealitate geografiko eta soziala. Lehenengo, Amazoniako oihanean kokatu behar gara eta gero hiki gaitzatzen bat dela gaitzatzen gara, irratsaio animazio sozialak burutzen hasi dezaten.

ordenagailuak erabiltzen, grabagailu digitalak, cd-ak grabatzen. Guk alditu. Giza laneko lanekin irratian funtzioa eta irratian landu daitezkeen gaitzak landu ditugu, ekarriak ezin zirela landu, gaitzak egin, dinamizatzen ari gara, irratsaio animazio sozialak burutzen hasi dezaten.

JUAN ZUBIRIA IKUTZA Jauna
Marianaren 1930an, 82 urte zituela, Euzkaldunak...
Haren emazte, Txana Mendiberea, semea, Iñaki, Txana, Iñaki, Iñaki, Iñaki...
1908A
2008ko apirilaren 14
Oraindik gogoratzen dituzte TORO-TANAN TORO-TANAN, baina jaiak jaiak...
2008ko apirilaren 14

hilberriak urteurrenak eskertzak
Tolosaldeko eta Leizaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da
HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle
ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko hitza.info / Tel: 943-65 56 95

Pazko Asterako ekitaldi ugari antolatatu dituzte



Cofan talde indigenaren zati oso garrantzitsua da irratsaioa izatea; 1.000 bat dira cofan ezarritako hitz egiten dutenak.

Indigenek gaurtegi berriratuze, ezarritako guztiak ez dira lortu dute gabeak gabeak izateagatik. Baina irratsaioa da, ahozko kultura. Ahozkotasuna da komunikatze bide, ez dakite idazten jakin beharrik. Iratsia, beraien burua publikoki ezagutarazteko arma bat da zerkon. Cofan federazioa egiten ari den berri eman, bikerak antolatuta, heriotzen berri eman.

«Petrolio eta egurtegi enpresek indigenen bizimodua erabat aldatu dute»

Hegonemendua indigenen alde irratian ideologiko eta politikoa. Berriekin ziren lurren jabetza ezarritzen dute, zuek kutsatu dituzte gure lurra, ibaiak eta basoak zuek hondatu duzue Amalurra. Kulturalki eta sozialki ere, beraien burujabetza oso aldatuak izaten dute, beraien eskola museoak, ibai buruak eta azpiegitura kulturalki kudeatzen ari dituzte.

«Kasketak dituen indigena ez da basoan geratzen, badao. Hemen ikusten da arnildegia»

«Hilak 6, asteartea, Txin eta Tatan pailazoen emanaldia 11:30an Benito Izagire kultur etxean»
«Hilak 7, asteazkena, Haur Naturaf Airea, luma eta ura txobongilo emanaldia Bihar taldearen eskutik 11:30an»
«Hilak 8, osteguna, Mundu berria Apika taldearen puin kontaketa saioa 11:30an»
«Hilak 9, ostirala, Alboraren bila Lakun taldearen emanaldia 11:30an»

«Adaba Txiki basko biztanle txikiak» Aldaba Txiki AHTrako lanak hasieratik dardak argitu dute ohar baten bidez. «Trebekia-bidukua» eta hondakindegia sekuntuetan hasi dira hessak urdin eta laranjak, argitu dute, eraberean.

«Hilak 6, asteartea, Txin eta Tatan pailazoen emanaldia 11:30an Benito Izagire kultur etxean»
«Hilak 7, asteazkena, Haur Naturaf Airea, luma eta ura txobongilo emanaldia Bihar taldearen eskutik 11:30an»
«Hilak 8, osteguna, Mundu berria Apika taldearen puin kontaketa saioa 11:30an»
«Hilak 9, ostirala, Alboraren bila Lakun taldearen emanaldia 11:30an»

AHTren lanen lehen urratsak Aldaba Txikin

Tolosako irratier dardak eta «arnildegia» dela esan dute. Tolosaldea irratier dardak eta «arnildegia» dela esan dute. Tolosaldea irratier dardak eta «arnildegia» dela esan dute.

«Adaba Txiki basko biztanle txikiak» Aldaba Txiki AHTrako lanak hasieratik dardak argitu dute ohar baten bidez. «Trebekia-bidukua» eta hondakindegia sekuntuetan hasi dira hessak urdin eta laranjak, argitu dute, eraberean.

«Hilak 6, asteartea, Txin eta Tatan pailazoen emanaldia 11:30an Benito Izagire kultur etxean»
«Hilak 7, asteazkena, Haur Naturaf Airea, luma eta ura txobongilo emanaldia Bihar taldearen eskutik 11:30an»
«Hilak 8, osteguna, Mundu berria Apika taldearen puin kontaketa saioa 11:30an»
«Hilak 9, ostirala, Alboraren bila Lakun taldearen emanaldia 11:30an»

«Adaba Txiki basko biztanle txikiak» Aldaba Txiki AHTrako lanak hasieratik dardak argitu dute ohar baten bidez. «Trebekia-bidukua» eta hondakindegia sekuntuetan hasi dira hessak urdin eta laranjak, argitu dute, eraberean.

argazki lehiaketa
bidali opor hauetako argazkiak!
NORA BIDLIZ?
1. Saria
2. Saria
3. Saria
Tolosaldean@tolosaldeko hitza.info helbide elektronikoa
HITZA.info Tolosaldeko Leizaldeko egunkaria Apirilaren 6tik 28ra
HITZA aste santuko argazki lehiaketa

Txintxarri Abesbatza 50. urteurrena Portugalen ospatzen ari da

Alegia » Abeslariek sei egun pasako dituzte Portugalen. Gaur Evora herrian kontzertua eskainiko dute.

ERREDAKZIOA

Dagoeneko Alegiako Txintxarri Abesbatzako kideak Portugal aldean dabilta. Sei eguneko bidaian, Portugalgo bazterrek bisitatu dituzte, eta bide batez, Coral Evorak antolatutako emanaldia ere eskainiko dute Evora herrian. Abesbatzaren 50. urteurrenako bidaia izango da.

Txintxarri Abesbatzak Coral Evorarekin duen harremanetik sortu da kontzertu hori emateko aukera. Harremanetan jarri ostean eta hainbat elkarrizketaren ondoren, Coral Evora alegiarren kontzertua antolatzeko prest agertu zen. Txintxarri abesbatzak Evorako Convento do Spinheiron eskainiko dute kontzertua gaur, 21:30ean. Evora hiria Portugalgo hegoaldean kokatuta dago, Lisboatik 130 bat kilometro. Hiri erromatarren eta musulmanen garaiko aztarna eta monumentu ugari ditu.

Hamabost abestiz osatutako emanaldia eskainiko dute Txintxarri abesbatza osatzen duten berrogei lagunek Garbiñe Orbegozen zuzendaritzapean. Mariage Rekondo alegiarrak lagunduko die pianoarekin zenbait abestitan.



Gaur egun Txintxarri abesbatza osatzen duten kideak. EDUARDO ARRÁIZ

Eraguztietako kantuak kantatuko dituzte eta hizkuntza askotan arituko dira gainera. Kantu asko euskal doinu ezagunak edota euskal musikagileek eginiko konposizioak dira, hala nola, Luis Elizalde zangotzarraren *Nere andrea dantzaz plaza*, Benito Lertxundiren *Herribera*, Mikel Laboaren *Hegok ebaki banizkion*, Gabriel Olaizolaren *Haurtxoa sehaskan*,...

Beste zenbaiten artean, Joxe Mari Iparragirrek XIX. mendeko Alegiako trapu-saltzaileari eskainitako *Trapu zarrak* kantua ere abestuko dute; kantu horretan Xefe Balerdi abesbatzako tenorea

bakarlarri gisa ariko da. Portugalen ezaguna den doinu bat ere abestuko dute alegiarrek, *Vira beirao*; Portugalgo dantza herrikoia da eta emanaldia amaiera Joxe Mari Gonzalez Bastidak konposatutako *Saratarra* doinu ezagunarekin emango diote.

25. urteurrena, Alemanian

Txintxarri abesbatzak 1985ean egin zuen lehen bidaia, 25. urteurrena ospatzeko. Alemaniako Nuremberg eta Winkelhaid hirietara egin zuen bidaia garai hartan eta emanaldiak eskaini zituzten bertan Joxe Gastesiren zuzendaritzape-

an. Hogeita bost urte geroago Portugal hautatu du abesbatzak bere 50. urteurrena ospatzeko. Hala, Aste Santuko gainerako egunak Lisboa eta inguruko herrietan emango dituzte abeslariek. Sintra, Cascais, Cabo da Roca bisitatuko dituzte, besteak beste. Apirilaren 5ean itzuliko dira herrira.

Txintxarri Abesbatza Kultur Elkartea ahalgin berezia egiten ari da bere 50. urteurrena behar bezala ospatzeko. Aurten urte osoan egingo dituzte ospakizunak, eta laster aurkeztuko dituzte urteurrenako prestatu dituzten ekitaldiak.

erakutsiko dituzte Alegian eskainiko duten emanaldi batean; Txintxarri Txiki eta Txintxarri abesbatzekin batera izango da emanaldi hori.

Tailerraren berri ematen duten liburuki edo triptikoak, Alegiako kultur etxean ez ezik, hainbat tabernatan eta dendatan ere jarri dituzte.

Izena hilaren 9rako eman beharko da Kultur Etxean

Apirilaren 9a baino lehenago eman behar da izena Alegiako kultur etxean. Interesatuak bertan aurkituko dituzte izena emateko orriak eta orri horiek bete eta Kultur Etxean bertan utzi behar dira. Ondoren, parte-hartzaile guztiekin harremanetan jarriko da tailerreko arduraduna eta, tailerrari buruzko xehetasunak emateko tailerra hasi baino lehenago bilera bat egingo da.

Zalantzaren bat izanez gero, *abesbatzaitalerra@yahoo.es* mai-lera idatzi daiteke edota bestela, interesatuak, Kultur Etxean bertan utzi ditzazkete galderak eta Txintxarri Abesbatza Kultur Elkarteko norbait beraiekin harremanetan jarriko da.

'Kantuaren eta jolasaren' tailerrean izena emateko aukera

ERREDAKZIOA

Alegialdeko txikiak musikaren munduan murgiltzeko, Txintxarri Abesbatza Kultur Elkartek *Kantuaren eta jolasaren* tailerra antolatu du. Hilaren 16ean hasi eta ekainaren 26ra bitarte luzatuko da tailerra eta Alegiako kultur etxean izango da.

Musikarekin lehen hartu-emaiz izango dute tailerreko parte-hartzaileak, eta beraz, ondo pasatzeko doinuak ikasiko dituzte, joko desberdin bidez, kantuak uztartuko dituztelarik.

Astean behin elkartzeko dira arratsaldeko 16:15etik 17:00ra izango da. Ostiralero, 45 minutuz

musikaren eta jolasaren unibertsioan murgilduta egongo dira.

Idoia Iraola tolosarra izango da tailerraren arduraduna. Lehen Hezkuntzako lehen eta bigarren mailako neska-mutuei zuzendutako tailerra da, eta dohainik izango da. Alegialdeko herri guztietako haurrek parte har dezakete. Tailerrean jolaserako erabiliko diren materialak eta musika tresnak Txintxarri Abesbatza Kultur Elkartek jarriko ditu, eta parte-hartzaileek ez dute ezer ordaindu beharrik izango.

Bukatzean, emanaldia

Asko dira tailerrean landuko diren kontzeptuak; ahotsa, gorputz-adierazpena, erritmoa, mugimendua, memoria, entzumena, talde-lana eta emozioen lantzea, kantua-ren, perkusioaren, dantzaren eta jolasaren bitartez.

Tailerra bukatzean, ikasitako kantuak eta jolasak jendaurrean

**Kartaz gain
apirilaren 11tik 3era
ASTE SANTUKO menua
eskainiko dugu:**

Iriarte jatetxea

- Januurrekoa
- Zizka-mizakak
- Itsasi solpikoa
- Alkatofak plantan urdaiazpiko iberikoarekin
- Parritxo eta txirladun arrozta saldatua
- Aukeratzeko:
 - Uzarreko txerrikuma
 - Itas zapo arrautzaztatua olioli erara
 - Legatza plantan barazkitxoekin
 - Salomilla
- Postrea:
 - Marrubiak jagurti zoparekin

**33 €
beza eta
edariak aparte**

Tel.: 943 683 078 • BERROBI

Gutunak

Aberri Egunari begira

Aberri Egunaren ospakizuna gure nazioaren egoeraren isla nagusia izan ohi da. Bere existentzia eta mortasuna ukatua, lurraldea zati-tua eta etorkizuna libre eta demokratikoki erabakitzeko eskubidea ezabatua duen herriak, derrigorrez Aberri Egunari izaera aldarrikatzailea eman behar dio, izan ere, ospakizun batetik haratago, egun hau mortasun baten adierazle da, etorkizunean nazio bezala bizitzeko gogoaren erakusle.

LABek bat egiten du Independentistak sareak Aberri Egunerako Hendaian eta Irunen egin duen deialdiarekin, eta langileak bertan mobilizatzea eta nazioa garaile eta estatua behar dugula aldarrikatzea animatzen ditugu.

Deialdi honek abagune honetan Euskal Herriak behar duen Aberri Eguna ospatzeko osagai guztiak biltzen ditu, bere deitzaileen izaera herritar eta eskaintza irekian eta bere edukian, Euskal Herriaren nazio izaeratik abiatuz beharrezkoa dugun aldaketa politikoa estatutuan erabiltzeko aldeko apustuan zehaztuz.

Prozesu demokratikoaren premia du Euskal Herriak. Prozesu demokratikoaren premia dugu herritarrok, langileok ere. Euskal Herriak aldaketa politikoa eta sozialak behar ditu eta prozesuaren eraikuntzan eragile politiko, sozial eta sindikalaren esku hartzea ezinbestekoa da. Bide horretan, geureari helzteko konpromisoa berretsi nahi dugu.

Sindikalgintzaren funtzioa garrantzitsua da, batetik, aldaketa politikoa bultzatzeko Euskal Herriak langileon eskubideak bermatuak izan daitezkeen beharrezkoak diren lanabesak eskuratzeko norabidean, eta bestetik, aldaketa politikoa gure herriak behar duen eredu sozialaren aldaketa ere jaso dezan bere baitan. Euskal Herria euskal herritarrok erabakitzen duguna izango da. Guregan dago ziletasuna, guregan dago egungoa irauli eta egoera berriak sortzeko indarra.

Euskal Herriaren hitza eta erabakia dira etorkizunaren ardatzak. Errepresioak, zapalkuntzak, ukazioak... ez dute hori eragotziko. Bi osagai horiekin hitza eta erabakia eraiki behar da etorkizuna. Demokrazia eta askatasuna etorkizuneko Euskal Herriaren ikur nagusiak izango dira eta langileria izango da prozesu horren motore nagusia. Langileak eta herri guztia aldaketa politikoa eta sozialaren aldeko dimamikara, eraikuntza nazional eta sozialera biltzera deitzen ditugu.

Herritarren indarra eta protagonismoa, herriaren hitza eta erabakia izan dira prozesu honetako ardatz erabakigarriak. Gaurdunik heldu behar diogu eta Aberri Eguna aurrera urratsa egiteko aukera paregabea dugu.

Mari Mujika, Tolosaldeko LAB.

E Elkarrizketa

LEIRE OLABERRIA Txirrindularia



HITZA

«Omniumean osoa eta buruz oreka duena izan behar da»

Ikaztegieta

Kopenhagenerako Mundu Txapelketan egindako lorpenaren ondoren, «gorputzez eta buruz indarberritu» nahi du Olaberriak.

IMANOL GARCIA

Beste domina garrantzitsu bat eskuratu du Leire Olaberriak (Ikaztegieta, 1977). Kopenhagen Munduko Txapelketan brontzezkoa lortu du omnium proban. Munduko Kopan eta Olinpiar Jokoetan lortuta zituen dominak eta Munduko Txapelketa falta zitzaion. Parte hartu zuen beste proban, puntuaketan, zazpigarren postua egin zuen.

Gustura itzuli zara Kopenhagetik lortutako emaitzekin?

Mundial batean beti zaila da emaitza onak lortzea eta ni oso pozik nago egindakoarekin. Munduko Txapelketan orain arte laugarren eta bosgarren postuak ziren nire emaitzarik onenak.

Domina omnium proban lortu duzu, diziplina berria.

Abenduan jakin genuen Olinpiar Jokoetan probak aldatu egingo direla. Orain arte Olinpiar Jokoetan egon ahal izan naiz puntuaketan ondo ibili naizelako. Eta ez nekien modalitate honekin etorkizunik izango nuen. Ni saiatu naiz ahalik eta hobekien omniuma osatzen duten proba guzti horietara moldatzen. Eta pozik baldin banago batez ere horregatik da, oso denbora gutxian ibilbide asko egin behar izan dudalako eta azkenean aurrean ikusi naizelako. Eta uste dut, nahiz eta omniumeko zenbait proba aldatuko diren, horietan ere ondo moldatuko naizela.

Zer egin behar izaten da omnium proban?

Bost proba dira eta bakoitzean egin duzun postua gehitzen doa. Egunean zehar puntu gutxien lortzen dituenak irabazten du. Zaila da, gorputzari asko eskatzen diolako eta buruari ere bai. Lan asko egin behar da eta oso denbora gutxi dago errekuuperatzeko batetik bestera. Proba oso berezia da eta

profil oso berezia behar duzu proba honetan ondo moldatzeko.

Ematen du pentatloi bat egitea bezala dela.

Antzeko zerbitat da. Abiadurako probak dituzu, bainairapenezkoak ere bai. Prestaketa aldetik ere ez dakizu zein izan daitekeen orekarik onena. Indarreko lan asko egin behar duzu, abiadurako lan handia ere bai, baina iraupeneko ere egin behar duzu. Dena da erronka, bai txirrindulariarentzat, bai prestatzailearentzat.

Beraz, txirrindulari osoa izan behar duzu probari aurre egiteko.

Osoa eta buruz oreka handia duena. Normalean egun guztian, proba guztietan ezin duzu maila altuena eman. Podioan egon ginen hirurok egin genuen akatsen bat proba batean. Beraz, ahalik eta akats gutxiena egiten duena eta ahalik eta hobekien eramaten dakienak lortzen du arrakasta.

Nola joan zen omniumeko proba bakoitza?

Nik oso garbi neukan ez zela ezer erabakiko azken proba egin arte. Goiz goizetik gauzak ondo hasi zi-

taizkidan. 200 metroan hirugarren gelditu nintzen eta bigarren-gotik oso gertu. Gero scratch-aren ostean lider jarri nintzen. Jazarpenarekin lidergo hori konfirmatu egin zen eta bagenekien puntuaketan egongo zela dena jokoan. Baina aldi berean bagenekien puntuaketa hori oso zaila eta berezia izango zela. Atzetik zetoztenak ez zuten inongo ardurarik eta bagenekien jendea erasora joango zela. Saikapenean gertuen nituenak jarraitu nituen baina... Penarik handiena puntuaketarena izan zen. Gero 500 metroko probarekin bukatu genuen eta hor podioa konfirmatu egin zen.

Eta hurrengo egunean, puntuaketa proba izan zenuen. Nola planteatu zenuen hori?

Lehentasuna eman genion omniumari, Olinpiar Jokoetako proba izango delako eta guretzat garrantzitsuena hori zelako. Prestaketa bereziki horri zuzenduta egin genuen. Puntuaketa 100 itzulietera ez dalan erraza. Aurreko eguneko astindua ere gogorra izan zen. Nire burua tanteatu nahi izan nuen eta probaren erdian erabaki nuen besteen itzalean joatea. Eta pena izan zen, lau-bost txirrindulari izan zirelako itzulia irabazi zutenak eta gero, bigarren zatian, lasterketan sartu nintzenean eta esprintak irabazten hasi nintzenean, saikapenean gora egin arren, ordurako egin beharrekoa egindazagoen. Ni oso pozik nago esprintetan indartsu ikusi nintzelako eta nire egoeran ahal nuen guztia eman nuen. Ondo joan edo ez hain ondo joan, beti sartzen naiz zortzi aurrenekoetan eta erregulartasan hori garrantzitsua da niretzat.

Hemendik aurrera nola aurrikusten duzu zure prestaketa?

Denboraldia ez da hasten irailera arte. Orduan Espainiako Txapelketa izaten da. Bestalde, oraindik ez digute konfirmatu baina dirudenez, saikapen olinpikoa urtebetekoa izatek bi urtetara irekitzen da. Orain jakin behar duguzer probek ematen dituzten puntuak saikapen hori ziurtatzeko. Bien bitartean, orain atsedean hartu, eta nola geldirik egotea ez zaidan gustatzen, ziurrenik errepidean ariko naiz. Baina lehenengo indarberritu nahi dut bai buruz eta bai gorputzez.

L Laburrak

TAKekoek hiru bigarren postu Batelen Ligan

ARRAUNA ● Tolosaldeko Arraun Klubeko (TAK) batel taldeek hiru bigarren postu lortu dituzte Ligan. Donostiako Konchan jokatu zuten azken jardunaldia. Infantil-kadete eta nagusien mailetak neskek eta jubenil mailako mutilek bigarren postua lortu zuten. Infantil eta kadete mailako mutilek ikuskizun ona eman zuten. Hurrengo lehiaketa Gipuzkoako Txapelketa izango da, hilaren 10 eta 11n.

Petritegi sagardotegira irteera antolatu dute

UGARTE ● Azken urteetan bezala aurten ere sagardotegirako irteera antolatu du Ugarteko Elkarteak. Aurtengoan berriz ere Petritegira itzuliko dira. Hilaren 10ean, larunbata, 12:30ean izango da irteera Ugarteko plazatik. Helduek 35 euro eta gaztetxoak 28 euro ordaindu beharko dituzte (prezioan bazkaria eta autobusa sartuta daude) eta 7 urte arteko umeek 6 euro (autobusarena). Beraz joateko asmoa dutenek aurrez txartela erosi behar dute Goikoetxeanean hilaren 6a baino lehen.

Hilaren 7a, ibilgailuen zerga ordaintzeko azken eguna

IKAZTEGIETA ● Udalak gogorarazi duenez, trakzio mekanikoko ibilgailuen zergari dagozkien erreziboak ordaintzeko azken eguna hilaren 7a da. Banketxean helbideratuta dauden erreziboak egun horretan kobratuko dira.

Intxurrekoen emaitza gazi-gozaok finaletan

PILOTA ● Intxurre pilota elkartekoek zenbait txapelketaren finalak jokatuko dituzte asteburuan. Errendimendu Txapelketan, Gipuzkoakoan, alebin mailan txapelundorde gelditu dira Aratz Irazustabarrenek eta Gorka Altuna. Partida luze eta gogor batean 18-17 galdu zuten. Errendimendu Txapelketan ere, eskualdekoan, alebin mailan Xabier Luzuriaga, Jon Luzuriaga eta Aitor Muruak 16-13 irabazi zioten Idiazabalgo taldeari, oso partida polita jokatuta. Udaberri Txapelketan, nagusien 3. mailan Asier Alonsok eta Iñaki Olanok 22 eta 15 galdu zuten Astigarragako pilotarien aurka.

Hilaren 6an egingo dute apirileko osoko bilkura

ADUNA ● Udalak apirileko osoko bilkura hilaren 6an, asteartea, egingo du. 20:00etan elkartuko dira eta bi gai jorratuko dituzte: Udaleko zerbiztu aniztetako langilearen oposaketaren oinarriak aztertzea eta Jon Antzaren inguruko mozioa. Udaletik azaltzen dutenez, «osoko bilkura irekia da, beste guztiak bezala, eta edonor joan daiteke».

Tolosaldeko eta Leitzaldeko komunikabide batek **Kazetaritzan edota Euskal Filologian lizentziatuak** edo ikasleak behar dituzte **lan poltsa osatzeko**.
Interesatuak deitu **687 41 00 32** telefono zenbakira edo bidali curriculum-a **tolosaldean@tolosaldekohitza.info** helbidera

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Mendi irteera

■ **Villabona.** Hilaren 11rako Villabona-Xoxoka-Hernani goizerako mendi irteera antolatu du Aizkardi mendi elkarteak. Izen-ematea, elkartean egin daiteke ostegunetan 20:00etatik 22:00etara, edo aizkardi@aizkardi.com mailaren eta 649-71 71 82 telefono zenbakian bidez.

Deialdia

■ **Villabona.** Udaleko Gazteria sailak, Gaztelekuia izango den Katea Etxea identifikatuko duen logotipoa sortzeko lehiaketa jarri du martxan 12-17 urte bitarteko eskualdeko gazteentzat. Sari bakarra emango da, eta norbanako lehiakidearentzat, mp4 ipod nanoa izango da. Taldeko lehiakideentzat be-

rriz, balio bera izango duen taldeko jarduera bat izango da. Jarduera horren proposamena kartazal txikian sartu beharko dute. Lanak aurkezteko azken eguna berri, hilaren 20a izango da eta Kirol eta Gazte informazio bulegoan, Liburutegian edota Kirolegian aurkez daitezke. Maiatzaren 4an jakinaraziko dute irabazlea.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Olarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.
■ **Leitza.** Campos M. Z. Elbarren, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Pozik gizonak prestatu eta zerbitzatutako afari «ederrean»

Tolosa» Bedaioko 62 emakume bildu ziren afaltzeko pasa den asteburuan; datorrenaren zain omen daude jada.

ERREDAKZIOA

Bedaioko emakumeak «gozatu ederra» hartu zuten pasa den asteburuan.

Izan ere, aurtengoan ere gizonak prestatutako eta zerbitzatutako afari «ederra» izan zuten. «Nabaria da Artubi elkartearen zuzendaritza berria lanerako ilusioz beteta datorrela», argitu dute. Afaria izan da aurtengoa duten bigarren ekitaldia, aurretik barri-

kotea ere egin baitzuten, eta «jendeak ederki erantzuten» jarraitzen duela nabarmendu dute. «Bedaiotarrak, euskaldun peto petoaren perfila bete bete betetzen dute, hau da mahaiaren bueltan biltzearena», argitu dute zentzu honetan.

Tertulia ederra goizaldeko ordu txikiak arte

Guztira 62 emakume bildu ziren afaltzeko eta ondoren «tertulia ederrean goizaldeko ordu txikiak luzatzen ari zirela ikusi arte» egon ziren. «Gehienak, ordu bietatik hiruretara existitzen ez den ordu horretan etxeratu ziren inork galdetuta ere ez dakitela esateko moduan», azaldu dute.

Guztiak «ederki» pasazuten, eta ondorioz, datorren urtean ere afaria egiteko zain daudela esan zuten.

«Batzuk, Bedaiotik kanpo bizi dira eta ez dute aukera handirik izaten Bedaioko berriez jakiteko eta horrelako bilerak aukera paregabeak izan ohi dira eurentzat», zehaztu dute.

Hilaren 17an sagardotegira joango dira

Datorren ekitaldirako ere lanak eginak dituzte Artubikoek sagardotegira joango baitira hilaren 17an eta dagoeneko 45 laguneko zerrenda osatua dute. «Egun horretan ere ez da giro txarra izango hauen inguruan».

A Agurrak



Zorionak!

Narao Olano (Leitza).

Gure sorgintxoak gaur 2 urte. Musutxoak etxeko guztien partetik.



Urte askoan!

Garazi Beloki Tobar (Alegia).

Etzi 7 urte. Zorionak familia, Amalur eta lehengusuen partetik.

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...



Bedaioko 62 emakume bildu ziren pasa den asteburuan afaltzeko. HITZA



TXOKOA hitza



LAGUN ARO GBC DKV JOUVENTUD

saskibaloitardarako

Apirilak 4 • Igandea • 12:30ean Donostiako Ilunben



saridunak

Sagrario Legarra Amundarain (VILLABONA)

sarrerak HITZAren egoitzan jaso